

Noaia!!!

www.noaia.com



Egunkaria auziari buruzko hitzaldia, Torrealdairen eskutik



Gure kulturaren aztarnak
biltzen dituen liburua

SARDIN ZAHARRAK



DANBOLINA



GAZTAINAK

ERRAUSKETARIK EZ
LURRIA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Usurbilgo baserriarren Kooperatiba
alkartasuna@usurbil.com. Ugarte Industrialea 12. 943 36 11 14



Aseguru Artekaritza

Eskatu aurrekontua

- autoak
- etxeak
- bizi-aseguruak
- komunitateak
- merkataritza-dendak
- enpresak
- pentsio planak

Albisteak iruditan !!

Azaroaren 28ko manifestaziora joateko deialdia

Erle Egunean, ekitaldi bat egiteko asmoa zuten Usurbil Bizirik taldeko kideek baina eguraldi txarrak zapuztu zuten ekimena. Dena den, pasa den larunbatean gune informatiboa jarri zuten Mikel Laboa plazan. Bide batez, azaroaren 28an errausketaren aurka Donostian egingo den manifestaziorako deia egin zuten.

Donostiako manifestazioa arratsaldeko 17:00etan irtengo da Anoetatik. Deialdia errausketaren aurkako plataformen koordinadorak egin du (tartean dira Zubieta Lantzen eta Usurbil Bizirik taldeak).



ANOETATIK 17:00ETAN ABIATUKO DA AZAROAREN 28KO MANIFESTAZIOA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

BERDINTASUNERAKO TEKNIKARI BILA **5. OR.**

BERTSO BAZKARIA ANDATZPEN **8. OR.**

ZUBEROAKO IKASTOLAK, LAGUNTZA ESKE **9. OR.**

IGANDEAN, HAURRENTZAT ZINEA **12. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Kale nagusia: 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegin - Gozotegia

LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



ARITZ GORRITI

Alkohola edan eta... egin nahi duzuna?

Gidatu behar baduzu, alkoholik ez eta halako kanpaina, Gilelo eta bestelakoak ezagunak dira gurean. Egia da, sarri errepideek berri txarrak baino ez digute uzten. Alkohola da, errepideetako istripu askoren kausa nagusietako bat.

Aisialdian, ospakizunak edo bestelakoak tarteko, aitzakia handirik izan gabe alkoholaren kontsumoa ohikoa da gurean. Norberak kontsumitzen duenarekiko daukan ardura ezin da ukatu, ezta legedia zenbaiteraino gogortu den ere. Puntukako gida gaimena hor dago. Isunak handitzen eta zigor epaiak indartzen ari dira. Bestalde, euririk egiten ez duen asteburuko gau ilunetan (ez ordea, astetartean, goiz, eguerdi edo arratsalde partean) geure alkohol tasa neurtzeaz arduratzen diren zaintzaileak hor ditugu. Haiek gogorarazten digute, ustez alkohola gehien kontsumitzen den gauetan, ostiral eta larunbatetan alegia, autoko giltzak etxean utzi eta garraiobide publikoa erabiltzera gonbidatzen gaituzte. Baina nola ba, beste alternatibarik ez eta oraindik gaur egun askorentzat merkeagoa eta eskuragarriagoa denean, ostiral gau batean autoa hartzea. Honaino, betiko kontua.

Nobedadea, ezusteko tristeia, beste behin justiziarik gabeko

justizia agerian uzten duen albistea, azken egunotan gertatu dena. Gai berarekin jarraituta, alkoholemia frogan positibo edo negatibo ematearen muga zenbaki batek bereizten omen du. Zero askoko zenbaki batek zehaztuko da, herritarrok egoki gidatzeko hainbat erakunde publikotatik gu hezitza bideratu den inbertsioa. Berdintasun gaiak ere neurri eta modu berean aintzakotzat hartuko balira... Bestela ezin ulertu gertatu berri dena.

Odolean alkohol tasa gutxi edo gehiago daramanaren une jakin bateko kontzientzia maila neurtzea zaila da, are konplikatuagoa norbaitek alkohola edan duelako kontzientzia erabat galdua duela baieztatzea. Adibidez egin behar ez zuen zerbait egin duenean, egin behar ez zuen hori beste delitu larriagoa denean gainera. Argi dagoenez, legedia gogor aplikatzen zaie auto gidariei. Horregatik guztiagatik edo ulergaitza da genero indarkeriari lotutako hilketa baten epaiketan, nola baliatu duten alkoholaren kontsumoa ustezko hiltzaileari zigorra arintzeko. Kasua argi dagoenean; ustezko hiltzaileak egindakoa onartu duenean, alkoholaren kontsumoa beste edozer eginda delitutzat jotzen denean... Posible ote?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

35.000 sinadurek, bost minutuko eztabaida...

Azaroaren 7an Gipuzkoako Aldundiak "herritarrak parte-hartzean trebatzeko" lau saioko ikastaro ponpoxoa bukatu zuen Donostian. Bai, baina estrategikotzat jotzen dituen gaietan (dirua mugitzen direnetan, alegia), azpiegituretan adibidez, ederto moldatzen da bera bakarrik. Han izan ginen, AHT-aren aurkako taldea eta Jaizkibel Bizirik-ekin batera iruzur lotsagarri hau salatzen.

Duela ez asko Gasteizko legebiltzar okupatua EAJ, PSOE eta PP alderdiek demokrazia parte-hartzaileaz zer ulertzen duten erakutsi ziguten: hondakinen euskal legea proposamena aurkezteko beha-

rrazko ziren 30.000 sinadura biltzeko sei hilabeteko lana, diru eta material inbertsioa eta batez ere pertsonen ahaleginak, eztabaidarako eta defendatzeko aukerarik eman gabe sikiera, zuzen zuzenean zabor-ontzira bota zuten, "kleenex" bat botatzen den bezalaxe. 35.000 sinadurek bost minutuko arreta baino ez dute merezi izan. Eta tartean ehundaka usurbildarrenak. Haietako batek beraiek badakitela zer behar duen herriak eta lau urtetik behin bere nahia adieraztearekin nahikoa dela esateko muturra izan zuen.

Errauskailuaren kasuan ere herriari bizkarra ematen diete, interes orokorra eta gutxi batzuen interes partikularra

(dirua) kontrajarrita eta bateraezinak direlako. Ez dute birziklatu nahi errauskailua eraikiz eskrupulu gabeko negozio-gileak aberastu egingo direlako eta han erretzeko zerbait behar dutelako.

Datorren azaroaren 28an, Donostian, kalera atera beharra daukagu ozen manifestatzera ez diegula utziko gure osasunaren kontura aberasten, ez diegula utziko 35.000 sinatzaileetaz barre egin dezaten eta benetako gizarte demokratiko eta parte-hartzailea nahi dugula.

Jon Mikel Larrañaga Maiz,
Usurbil Bizirik

txirriStra
KONTBEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Berdintasuneko teknikari lanpostu bat betetzeko lan-deialdia

Urriaren 20ko ebazpenaren bidez, emakume eta gizonen berdintasuneko teknikarientan plaza txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bitartez betetzeko deialdia onartu zuen Usurbilgo udalak. Lehiaketa honetan izena emateko epea azaroaren 25ean amaituko da. Informazio gehiago udaletxean.



LANALDI ERDIKOA IZANGO DA LANPOSTU BERRI HAU.

Deialdi honen helburua emakumeen eta gizonen berdintasuneko teknikarientan lanpostu bat (karrerako funtzionario) jabetzan betetzea da, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez. Lanpostu hori lanaldi erdikoa izango da.

Lanpostuaren eginkizunak, lanak, rolak eta gainerako ezaugarriak, honakoak dira, aurkezten diren pertsonen ezagutu ditzaten, eta hautapen prozesua ebaluatzeko irizpideen oinarria izango dira.

Eginkizunak

Orokorrean, aukera berdintasunaren inguruan udalerrian egingo diren jarduerak zuzentzea, zaintzea eta sustatzea.

Funtsezko eginkizunak

- Urtean zehar egingo diren jardueren antolakuntza-lanak zuzentzea, zaintzea eta berauetan parte hartzea.

- Espedienteak bideratzea eta txosten zein proposamenak egitea.

- Plan, programa eta proiektuen diseinuaren ardura izatea.

- Bere sailari dagokion urteko aurrekontu-proiektua egitea.

- Udaleko beste saileko arduradunekin lankidetzak koordinatzea.

- Programazio-lanak egitea zerbitzua behar den moduan eskaintzeko, eta betiere, ezarritako irizpideekin bat etorriz.

- Deitutako Batzordeetan partehartzea, koordinazio eta funtzionamenduirizpideak zehazteko eta departamentu ezberdinen harremanak bideratzeko.

Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere gaitasun eta lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

Merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plana aurkeztuko da datorren astean

Siadeco enpresak Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plangintza egin du. Aurretik egindako diagnostiko batean oinarritu dira plangintza osatzeko.

Merkatariei eta ostalariei plangintza aurkezteko asmoz, deialdi ireki bat egin du udalak. Bilkura hori Artzabalen egingo da, azaroaren 25ean asteazkena. 13:30ean hasiko da merkatariei eta ostalariei zuzendutako bilkura.



UDALBATZA ARETOAN SALTOKIETAKO ARDURADUNAK, UZTAILEAN EGINDAKO BILERAN.

Iparaldeko laborantza, hitzaldi ireki batean aztergai

Ipar Euskal Herriko lurraldeak berezko instituzio batean aitortuak izatea eskatzen ari dira aspaldi. Nekazaritza arloan erakunde propioa onartzen ez zietela ikusirik, ELB sindikatuko laborariek Euskal Herriko Laborantza Ganbera sortu zuten 2005ean.

Aitzagaren eskutik

Maritxu Lopepe kazetaria da, nekazaritza arloan aditua, eta Aitzaga Elkartearen ekimenez hitzaldia eskainiko du azaroaren 19an osteguna, arratsaldeko 19:30ean Sutegin. Sarrera doan.



Presoen eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzea

Hilabeteko azken ostiralarekin egin ohi duten bezala, azaroaren 27an Etxean Nahi Ditugu elkarrekoak elkarretaratzea egingo dute Mikel Laboa plazan. 20:00etan hasiko da euskal presoen aldeko ekimena.

Marisa Alejandro Palentziara bidali dute

Honi lotuta, Marisa Alejandro Palentziako Dueñas espetxera eramán zuten azaroaren 1ean. Hau bere helbidea:

Marisa Alejandro
Centro Penitenciario
La Moraleja
Mód. 14 - Ctra. P-120
34210 Dueñas (Palencia)

KALEBERRI ENEKO HARREGUY

Gallego Haizea



Egokitzen zitzaidala eta zerbait idazteko haizeak narabilen. Haizetan ibili naiz eta azkenean eguna iritsi eta haizea ere saltzen nengibilen. Ez da sorkuntza lan handirik baina ez ezazue haizera hartu.

Haizea. Lurrazalarekiko higitzen den aire masa. Haize ahul. Haize alai. Haize arin. Haize hozkirri. Haize nagusi. Haize-arka. Haize gorri. Euskal Herriko zenbait lekutan, iparrekialdeko haize hotz eta lehorrari ematen zaion izena. Haize nagusi. Leku batean, beste norabide-

etako haizeek baino maiztasun askoz handiagoz jotzen duena. Haize-bolada. Haize-erasoa, haizetea. Haizekada. Haize zakarra, eroa. Haize eraso, erauntsia. Haize-jauzi. Haize zirimolak, zurrunbiloak. Haize hutsuneak. Ipar haizea, Hego haizea. Haize hegoa Haixe berdie Bermeon.

Haixe franku(e). Gallegoen haizea. Haizetza. Haize beltz. Haize bihur. Haize-airu. Haize-albo. Haize-bolada. Haize bumbada. Haize-burrumba. Haize-burrunda, furrunda. Haize-erauntsi. Haize erre. Haize kirri. Haize-kolpe. Haize largo. Haize-pirrinta.

Nik ez dakit zer izan dugun hondar egun hauetan, baina... horrenbeste haize-izen... zuek aukeratu. Ez dezagula esan behintzat, euskarak ez duela beste hizkuntzetako ñabardurak itzultzeko balio. Hizkuntzarekin asmatzen ez badugu, ez diezagun errua, behintzat, geure buruari baino bota.

SANTUENA

IÑAKI LARRAÑAGA

Auzipetuekin bat eginik



Orri txuri baten aurrean aurkitzen naiz etxean eta ordu erdi bat dut kronika idazteko. Zergatik ez naiz lehenago hasi? Beti pentsatzen dut berriren bat egongo dela azken unean eta kronika bera bakarrik idatziko dela. Aitzakiarik gabe, nahiko alfertuta ibili naiz.

Ez zen giro izan ibaiarekin, euria eten gabe eta segi eta segi ... Uholdeak ikusita gaudenok halakoetan beldurra izango ez dugu ba! Badakizue gure planetan horrelakoak tarteka tarteka errepikatzen direla, gertaera ziklikoak izaten dira eta mundu osoan gertatzen dira gainera, albisteak ikusi besterik ez dago.

Ziklikoa izaten den bezala gure herriaren aurkako eraso. Lehenengo Egin, gero Egunkaria eta laster hauen aurkako epaiketa. Eta ez naiz politikaz ari esaten dudanean ezin ditugula bakarrik utzi. Badaezpada ez dituzte beraien egunkariak itxiko, zein? Eta euskaraz idazten duen bakarra! A ze kasualitate! Euskararen eta Euskal Kulturaren aurkako eraso honi erantzuna eman behar diogu, ze oraingo honetan begira gertatzen bagara... Beraz hemendik eta auzotar guztiei esan, egongo diren mobilizazioetan parte hartzeko eta lehen esan bezala ez naiz politikaz ari. Denok auzipetuekin!

ATXEGALDE

ARITZ GORRITI

Ikastolan gripe kasuak

Gure auzoan herrian garrantzitsuak diren bi zerbitzu ditugula esan genezake bata Kiroldedia eta bestea Ikastola. Gaurkoan Ikastolari buruz hitz egingo dut.

Batetik A gripea dela eta, ikasle asko Ikastolara joan gabe daude. Badirudi, udazkena izan dela gripea iritsi zaigun urte garaia. Ez da harriztekoa ze egun hauetan bizitzen ari garen tenperatu aldaketa bortitzak birusa indartzen dutela dirudi. Gainera gripe hau oso kutsagarria da eta ikasgelan norbaitek izatea nahiko da ingurukoak ere kutsatzeko. Dena dela, kasu arruntetan astebete etxean egonda gripea gaintzen dugula esan daiteke.

A gripearen kontrako txertoa ere dagoeneko anbulatorioan daukagu baina, agintariek uste dutena baino erantzun txikiagoa izan du. Dagoeneko inguruan denok ezagutu dugun gripea pasatu duen norbait eta hasieran zabaldu zuten alarma hark sortutako beldurra gaintitu dugula dirudi. Dagoeneko ikasi dugu gripe hau ez dela beste gripeak baino okerragoa.

Azken aipamen bat egin nahi nuke egun hauetan egiten ari diren jangelatoko greba dela eta. Ikastolak ere badu jangela baina ez da grebara deitutako jangelen artean aurkitzen. Beraz, ikastolara joaten diren haurren gurasoak lasai egon daitezke.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Hiru herri senide



Urteak daramatzagu harremanetan alde batetik Aginaga eta Usurbilgo jendeak eta bestetik Zuberoko Urdiñarbekoak, zehazki Bilxokua elkarteko zuberotarrek. Urtean barrena ekintza bat baino gehiago egiten dugu elkarrekin, nire ustez oso ondo aprobetxatzen ditugunak. Urteroko lehen hitzordua Aginagan izaten da eta, nola ez, otordu goxo baten inguruan, Urdaira sagardotegiraino zuberotarrak gurekin afaltzera etorrita. Bigarreneguz, Urdiñarbera gipuzkoarrak joaten gara maiatzean antolatzen duten Musika egunerak: atek zabalik izaten ditugu hara inguratzen garenok. Baina aipatzen ari naizen harreman gogo hori, urrian eta azaroan ospatzen dugun sagardo afari batean inguruan gauzatzen da, Urdiñarben. Esan behar dugu gainera, aurten goafarian, azaroaren 14an, 150 lagun inguru bildu ginela eta Bilxokoa atera ziren xoxak, Seaska elkartearen barruan dagoen integrazio batzordeari laguntzeko eman zirela. Integratio batzordeak lan handia egiten du arazo bereziak dituzten haurrak Iparraldeko ikastoletan ahalik eta baldintzarik onenetan aritu daitezzen. Hainbeste lagunentzako afaria egitekotan, lanak goizetik hasten dira. Joxemari Eizagirre



“Aldapa” izaten dugu beti sukaldari-buru, bera da afariaren animatzaile garrantzitsua. Haren inguruan betikoak biltzen gara baina baita ere urtero inguratzen zaigun jende berri gazte eta martxosoa. Kronika honekin doan argazkian ikusiko dituzue. Afari bitartean eta ondoren girorik ez zen faltatu. Bilxokoko ganbaran ere ez. Elkar agurtzeko, topa edo brindisean aipatu genuen bezala, “beste berrogei urte” batzuek eta besteek erantzun “onean”, hangoek esaten duten bezala. Horrelako ekintzekin urtetik urtera apurtzen ari gara Euskal Herrian oraindik dauzkagun barruko mugak.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Usurbilgo ondarea ezagutzen



Josu Tellabide eta Asier Agirresaroberi eta Usurbilgo Udalarari, Alkartasunari eta Noauari eskerrak eman nahi dizkiet Usurbilgo Ondarea ezagutzen liburuan egin duten lanagatik edota babesa eta laguntza emateagatik. Pasa den astean iritsi da nire eskuartera eta aitortu behar dut gustura eman diodala lehenengo errepasso azkar bat hasi aurretik eta atzeraino.

Askotan ohartzen ez bagara ere, horrelakoetan jabetzen zara han eta hemen ikusten ditugun hainbat txokok benetako historia bat dutela atzean, gure arbasoak bertara joaten zirelako garbiketarik egitera edo ur edangarriaren bila edo jakizu zertara. Eta horrelakoei ezin diegu muzin egin, gure parte baitira.

Halere tarte hau ideia bat botatzeko aprobetxatu nahi dut. Duela urte gutxi hainbat gune edo eremu izenekin kartel batzuk jarri ziren han-hemenka baina interesgarria litzateke, batez ere landa eremuan, bidegurutzeak dauden lekuetan bertatik zein baserri edo etxetara joaten den jartzea. Nik pertsonalki auzokoak direnak gutxi edo gehiago kontrola ditzake baina beste auzoetatik barrena ibiltzean baserri edo etxe izenak jakiteko gozoz gelditzen naiz. Letreroek laguntza handia eman dezakete gure herria bere osotasunean gehiago ezagutzeko. Botata gelditzen da!!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Kondenak

Legeen eta justiziaren ekitatea garesti ladaoen garai hauetan ikusi dugu zein kondena arina jasotzen duen neska gazte bat hil duenak, hiltzailea diruduna eta familia “onekoa” denean. Kontuak garestiago ateratzen zaizkio Euskal Herrian kutzazaina Molotov koktel batekin erre duen gazteari. Euskaltzaleak euskarazko egunkaria sortzen badu, berriz, badaki zein sari jasoko duen: auzitegien kondena eta epaiketa aurreko urteetako sufrikarioa.

Zubietarrok ere ari gara kondenak jasotzen: bateko erraus-egia, besteko makrokartzela... Delitua? Bada, udalerririk ez izatea eta lur eremu zabala edukitzea. Horiek gutxi ez eta orain zigorraren gainean zigorra: herriari bizia ematen dion eskola txikia txikitu egin nahi digute, 5 urtetik aurrerako gure haurrak deserriratu egin nahi dizkigute. Delitua? Ikastetxe txiki-egia edukitzea, gurasook ume gehiegi ekarri izana eta Zubietak Lasarte ondoan edukitzea.

Agintariak krisi garaioan ez omen dute dirurik 2 ikasgela gehiago eraikitzeko eta gero interpretazio zentroa erantsiko diote erraustegiari eta haizeak botako dituen seinaleetan xahutuko dute dirua eta mugikortasunaren eta herri eta auzoen bizitzaren aldeko publizitate kanpainetan zuritu nahiko dute beren burua...

Inork ez zidan esan zubietar izatea zein nekeza den, hobe nuela hautatzea munduko hiritar izatea.



Egunkaria auziaz hitzaldia eskainiko du ostiral honetan Joan Mari Torrealdai

Egunkaria kasuan auzipetuak izango direnen aldeko babes taldea osatu da Usurbilen. Ostiral honetarako, bideo proiektzioa eta hitzaldia antolatu dute Sutegin, 19:00etatik aurrera.

6 urte eta erdiren ondoren, Iñaki Uribe, Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga eta Txema Auzmendirekin batera epaituko dute Joan Mari Torrealdai, Auzitegi Nazionalean hasitekoa den auzian.

Auzia artxibatzeke eskaera egin izan bada ere (fiskalak berak egin zuen), badirudi urtea bukatu baino lehen hasiko dela epaiketa.



HITZALDIA ARRATSALDEKO 19:00ETAN HASIKO DA.

Datorren astean, bertso-kantu bazkaria Andatzpen

Entsalada nahasia; babarrun jana, aza eta sakramentu gutiekin; postrea eta kafea. Hori menua. Eta bazkalostea girotzeko, puntako bi bertsolari kantuan: Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre. Ba al da larunbat eguerdirako plan hobegorik? Azaroaren 28rako Bota Punttubak eta Euskal Kantu Taldeak iragarri duten bertso-kantu bazkarirako osagaiak dituzue horiek. Txartelak dagoeneko salgai dira Txiribogan eta Artzabalaren bertan.

Kantuan, hala ere, eguerdi partean hasiko dira. 12:30ean bertso-kantu jiran ibiliko dira, eta jira horretan ere bidelagun izango dituzte Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu bertsolariak.

14:00etan, ordea, Andatzpe elkarterako bidea egingo dute. Bertan bapo bazkaldu eta gero, kantuan jarraitzeko asmoa dute. Eta eguerdiko jiran bezalaxe, bazkalostean ere kantuan arituko dira Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu bertsolariak.

Txartelak alde zuzenetik erosi
Bazkarirako txartelak alde zuzenetik erosi behar dira. 20 eurotan daude salgai Txiribogan eta Artzabalaren. Txartelak eskuratzeko azken eguna azaroaren 26a osteguna izango da. Bota Punttuba Bertso Eskolak eta Euskal Kantu Taldeak elkarrekin antolatu dute datorren astean Andatzpen egingo den bertso-kantu jira eta bazkaria.



AMAIA AGIRRE ETA JEXUX MARI IRAZUREKIN BATERA ARITUKO DIRA KANTU TALDEKOK BERTSO-KANTU JIRAN.

Larunbat honetan, Egunkariaren alde kantu-jiran
Larunbat honetan, Euskal Herriko kantu taldeak Donostian elkartuko dira, Egunkariaren alde antolatu den jiran. 12:00etan bilduko dira Trinitate plazan, handik Boulevardera joateko.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

izaguirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

BENTA TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Zuberoako ikastolak, laguntza premian

Nafartarrak taldekoek, beste behin, otarrak jarri dituzte salgai

Duela zenbait urte, Zuberoako Eperra Ikastolaren aldeko kanpainan egin zen herrian; eraikin berrirako dirua bilduz. Baina Ipar Euskal Herriko ikastolen egoerak ez du hobera egin eta Nafartarrak taldekoek elkartasun ekimen berri bat jarri dute martxan. Gabonetako otarrak erosiz, Zuberoako ikastolak lagundu ditzakegu. Abenduaren 5ean amaituko da otarrak eskatzeko epea.

Duela bost urte, Alozeko Basabürüko ikastola eta Sohutako Eperra ikastolako gurasoek Zuberoako produktuekin osatutako otarrak jarri zituzten salgai. Jende askoren ahaleginari esker, inondik ere espero ez zuten erantzuna jaso zuten. Aurten ere, eskaintza goxoa egin dute eta Usurbilen, Nafartarrak taldearen bitartez bideratuko dute.

Bi otar daude aukeran. **Lehen otarrak hau dakar:** ardi gazta (1 kg), pateaa ahate gibelarekin egina (200 gr),



HERRITAR HAUEK BAT EGIN DUTE NAFARTARRAK TALDEAK BIDERATU DUEN KANPAINAREKIN.

gurinezko gaileta pakete bat, Txahalki kontserba piperrekin, berotu eta arrozarekin edo patatekin jateko prest (750 gr). Prezioa: 49 euro.

Bigarren otarra horrela osatzen da: ardi gazta (1 kg), ezitia (500 gr), pateaa, ahate gibelarekin egina (200 gr), guri-nezko gaileta pakete bat.

Prezioa: 36 euro.

Otarrak eskuratzeko, izena eman Bordatxon, Txiribogan edo NOAUA!n. Bestela ere, idatzi e-mail bat, nafartarrak@terra.es edo Nafartarrak Kultur Taldeko kideekin harremanetan jarri.


Kanpaina abenduaren 12an amaituko da. Egun horretan kantaldi bat egingo da Sutegin.

Patxi Seguiolak hamar urte bete ditu kartzelan

Patxi Seguiola "Ximio" euskal preso politikoak hamar urte bete ditu espetxean. Honen harira, Aginagako lagunak eta Usurbilen Nahi Ditugu taldekoek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Pintura erakusketa, mus txapelketa, herri afaria... Guztia, azaroaren 28an Aginagan. Hori bai, afarirako txartelak aldeztatik erosi beharko dira Txiribogan edota Aginagako zahar elkartean.

Azken eguna, azaroak 26 osteguna. Salneurria: 20 euro, umeek 12.

Une honetan Poissyko (Frantzia) kartzelan dago eta bertan pinturarekin lanean dihardu. Iazko gabonetan herriko presoek egindako lanen erakusketan parte hartu zuen eta www.talentscaches.org izeneko webgunean ere jarri dituzte ikusgai bere hiru koadro. Tartean, aldameneko irudian duzuen margolana.



MONT ST MICHEL IZENA DU PATXI SEGUIOLAREN KOADRO HONEK.

Josue
Igeltseritza:
☎ 606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

Herriko ondarea, orain liburu batean jasoa

Kalean da Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek jandutako “Usurbilgo ondarea ezagutzen. Kultura baten aztarnak paisaian”, hamar ataletan sailkatutako herriko ondarea biltzen duen liburua. Dugun ondarea ezagutu, baloratu eta zaintzera deitzen zuten egileek, pasa den azaroaren 10ean Artzabalgo zahar egoitzan burutu zen aurkezpen saioan. Datozen egunotan doan eta etxetz etxe banatuko da, NOAUA! Kultur Elkarteak, Udalak eta Alkartasuna Nekaritzza Kooperatibak bultzatuta kaleratu den lana.

NOAUA! Plazaratu berri den liburuan, zer modutan islatzen da herriko ondarea?

Josu Tellabide. Oso kontzeptu zabala da. Ondarea gure kultura, gure historiaren zati bat da. Gure jakinduria eta erabili ditugun tresnak. Kasu honetan, bizitzeko edo aisialdirako erabili diren tresna edo baliabide horietaz hitz egin dugu.

Asier Agirresarobe. Izenburuak azpi izenburua badu, “kultura baten aztarnak paisaian”. Udalerrian zehar sakabanatuak dauden ondare aztarna horiek, badoan kultura horrek utzitako aztarnak bildu ditugu.

N. Bilketa lan hori nondik hasi zenuten?

A. A. Iaz hasi ginen. Ez dugu modu jarraituan lan egin, boladaka baizik. Gauza berri asko topatu ditugu.

J. T. Kontu berriak, galdetu diegun pertsona askoren aldetik jasoak. Batek bere zentral elektrikoa muntatu zuen.

N. Aurkezpenean, esker hitzak izan zenituzten helduentzat. Informazio iturri baliagarriak izan dira zuentzat?

A. A. Beraiek bideratu gaituzte, pistak eman dizkigute. Batzuetan haiengana jo dugu zuzenean, bestetan, datuetara.



EGUNOTAN ARI DIRA ETXETZ ETXE LIBURU HAU BANATZEN.

N. Kaleratu berri den liburuarekin, Usurbilgo iragana eskutan dugula esan dezakegu?

J. T. Iragana eta oraina. Bertan agertzen diren tresna batzuk gaur egun ere erabiltzen ditugu. Hemendik denbora batera, norbaitek ondarea kontsideratuko du.

JOSU TELLABIDE

“Ondarearekiko, udal honek badu sentsibilitatea. Beste udal batzuk askoz gutxiago zaintzen dute”

A. A. Datu historiko asko ez dago halere, aztarna bilketa bat da. Kultura baten bizimodua zena. Bilketa lana helburu batekin egin dugu; etorkizuneari, zaindu, baloratu, eta mantentzeko.

N. Bilketa lan horretan ezustekorik, espero ez zenuten ezer aurkitu al duzue?

A. A. Topatu dugu oraindik liburuan ageri den ondare hori erabiltzen

duen jendea. Pozik gaude aurkitutakoarekin.

J. T. Baserri batean oraindik, teiltuko ura ukuilurako eta ganaduari emateko erabiltzen dute. Beste batzuek baita edateko ere, eta diotenez, hobea da. Gauza batzuk gorde eta zaindu egin behar dira.

N. Gaur egun burutzen diren hainbat proiekturen aurrean, ondarea zaindu eta errespetatzeko mezu argia helarazi nahi duzue?

J. T. Hitzaldi batean nioenez, gipuzkoarrok erakusteko moduko eliza erromaniko eta Egiptoko piramiderik ez dugu, baina egitura oso oneko baserri ederrak ditugu. Eta horiek zaindu egin behar dira, gure ondarea dira. Ondarearekiko udal honek badu sentsibilitatea. Beste udal batzuek askoz gutxiago zaintzen dute. Badira beren ondarearekiko lotsa agertzen duten beste herri batzuk ere. Ez dira kultura horretako parte sentitzen. Badira euskara berea den hizkuntza gisa sentitzen ez duten udal txekak. Eta hizkuntzarekin batera, gainerakoa.

“Katalogo bat osatu dugu”

N. Gai honi beste lan baten bidez jarraipena emateko bidea zabalik utzi duzue?

A. A. Ondare aldetik gehiena bildu dugu. Liburuko atal bakoitza, datuekin gehiago sakondu eta garatu liteke. Udalarri mezua helarazi nahi nioke; indarrak bildu ditzala, dagoen ondare hori osatzen eta batez ere hondatu dagoena, berregiten. Askori iritsi zaigu baina oso eraldatuta, galduta edo erdi galduta.

J. T. Katalogo bat egin dugu. Atal bakoitzarekin lan politak egin litezke.

N. Irakurleentzat azken hitzak.

A. A. Goza dezala liburuaz. Lasai irakur dezala. Gero, norbaitek gehiago badaki gai bati buruz, edo gehiago sakondu nahi badu, lasai galde diezagula.

J. T. Irakurlea ondarea ezagutu eta zaintzen joan dadila.



PASA DEN ASTEAN, KULTURALDIAREN BAITAN EGIN ZEN LIBURUAREN AURKEZPENA ARTZABALEN. BERTAN IZAN ZIREN EGILEAK, UDALA, NOAUA! ETA ALKARTASUNAKO ORDEZKARIAK.

Hasi dira etxez etxe banatzen “Usurbilgo ondarea ezagutzen” liburua aurkezteko baliatu da aurtengo

Kulturaldia. Egun hauetan ari dira liburu etxez etxe eta baserriz baserri doan banatzen.

Elementu naturalak, langintzak, eraikuntzak...

Usurbilgo herri ondareaz hitz egi-
tea, errota, ontziola edota zen-
tral hidroelektrikoak aipatzea da.
Aerodromo, ibai, zubi eta iturburuak
non ziren edo dauden ezagutzea. Baita
trenbide eta gotorlekuen udalerrri izan
dela ere oroitzea. Herri ondare anitzaren
aztarna bilduma orain liburu batean
jasoa dago. Barruko orrialdeetan, hona-
ko hamar ataletan sailkatua:

1- Megalitoak.

2- Mugarriak.

3- Langintza zaharrak: harrobi,
karobi edota ferratokiak.

4- Edateko ura: iturri eta iturburuak,

putzuak...

5- Ura eta giza jarduera: burdinolak,
errotak, ontziolak, industriarentzat
azpiegiturak, zentral hidro-
elektrikoak,...

6- Ibaiaren ingurukoak: ibaiak,
zubiak, kai eta portuak...

7- Eraikuntza militarrik:
gotorlekuak...

8- Trenbideak eta aerodromoak:

Txikiardiko tren geltokia,
Asteasuango aerodromoak,
Plazaolako eta kostaldeko trena...

9- Gurutzeak: gurutze bideak eta
tontorretako gurutzeak...



DENETARIKO ONDARE ARRASTOAK
BILDU DIRA LIBURUAN.

10- Hainbat eraikuntza, monumen-
tu eta beste: bolatokiak, aterpeak,
bordak, golf zelaia, monumentu
eta eskulturak...

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

943 69 68 52 · 620 800 186


Eskualdeko herriak bilatu

Kaixo lagunok! Gure eskualdea Donostialdea da eta hamaika herri ditu. Hizki zopa honetan ezkutatu ditugu herrien izenak, aurkituko al dituzu?

LH 4.mailako ikasleak



EA AURKITZEN DITUZUEN HERRI DENEN IZENAK.



Igandean zinea Sutegin, Piccolo eta Saxoren abenturak

Gauzak ez daude ondo Musika planetan. Musika-tresnen familia guztiak haserre daude eta etengabe ari dira sesioan. Guztia Sol, La eta Do giltzen desagertzearekin hasi zen, eta argi dago familietako bakoitzak besteari leporatzen diola errua. Kakofonia erabatekoa da: instrumentu bakoitzak bere kasa jotzen du eta inork ez du Orkestra Handiari buruz deus jakin nahi. Alabaina, zurezko instrumentu bat, Piccolo, Saxo metalezko musika-tresnaren lagun onena bihurtzen denean, Do notak ezin izango du horrelakorik sinetsi. Bi horiek adiskide egin badira eta elkarrekin giltza galduen bila abiatzea erabaki badute, ziur musikaren handitasuna aurkituko dutela kale-kantoiaren bueltan.



PICCOLO ETA SAXOREN ABENTURAK,
IGANDE HONETAN SUTEGIN.

Harmoniaren bila

Hartara, hirurak elkarrekin tranpaz eta arriskuz beteriko abenturan murgilduko dira. Harmonia lortzea ez da lan erraza, ez alajaina!

Azaroak 22 igandea

Ordua: 17:00etan, Sutegin.

Sarrera: 2 euro, egunean bertan.

Asteartean, ipuinak liburutegian

Datorren asteartean, azaroak 24, Maite Franco ipuin kontalariak saioa eskainiko du udal liburutegian, arratsaldeko 18:00etan. Saioa 4 urteko haurrei zuzendua dago.



Zine foruma Artzabalen

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen du "Te doy mis ojos" pelikulak

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna izango da azaroaren 25a asteazkena. Egun horretan, tratu txarrei buruzko lan bikaina eskainiko dute Artzabalen: "Te doy mis ojos". Iciar Bollainek zuzendutako lan honek zazpi Goya jaso zituen.

Emakumeekiko tratu txarren inguruan egin diren film bakanen artean, aipagarrienetakoa izango da Iciar Bollainen "Te doy mis ojos", asteazkenean Artzabalen eskainiko duten pelikula (gaztelaniaz, sarrera doan).

Iciar Bollain aktorea da baina zuzendari moduan osatu duen azken filma izan zen "Te doy mis ojos" (aurretik, "Hola ¿Estás sola?" edota "Flores de otro mundo" pelikulak zuzendu zituen). Urtzi Urkizu Berria egunkariko adituak dioen bezala, "Istorioak kontatzen trebea da Bollain, eta zintzotasunez heldu zion lan honetan tratu txarrei, zinema gogor eta konprometitua eginenez".

FILM SARITUA

"Zazpi Goya eta beste hainbat sari jaso zituen Iciar Bollainen pelikula honek"

Istoria sinesgarria egiten da: neguko gau batean Pilar etxetik ihesi aterako da, senarrak ematen dizkion tratu txarrekin gutziz nazkatuta. Lau gauza hartu eta



ARGAZKIAN, LAIA MARULL ETA LUIS TOSAR, PELIKULAKO AKTORE NAGUSIAK.

sema harekin eramango du. Antonio emaztearen bila joango da eta berarekin itzultzeko eskatuko dio. Pilar oraindik senarrarekin maitemindurik dago, eta sinetsi egingo dio hasiera batean. Filmak aurrera egin ahala, familiaren egiak azaleratuz joango dira, eta etxea infernu bilakatuko da Pilarrentzat.

Luis Tosar, aktore onenaren saria Donostiako Zinemaldian

Gidoiak ez du hutsunerik eta aktore protagonistek -Laia Marull eta Luis Tosar- jokatzeko dituzten rola paregabeak dira. Tosarri aktore onenaren saria eman zioten Donostiako Zinemaldian. Zazpi Goya eta beste hainbat sari ere jaso zituen "Te doy mis ojos" lanak.

Zumarte Musika Eskolakoak, kalejiran

Euskal Herriko Musika Eskola egun eta ordu berean "Musikalean" izeneko kalejiran, Santa Zezili eguna ospatzeko.

Usurbilen Zumarte Musika Eskolako txaranga, txistulariak eta trikitilariak arituko dira kalejiran.

AZAROAK 19, OSTEGUNA
"Musikalean" kalejira
18:30ean, irteera Zumartetik

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10 - atzekoaldea
943 372 795

URDAINTZI S.L.
brakuntza
943 372 795
943 372 796

LATAILLADE
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Aristitxo 8, behea · 943 363 548 · 609 888 021

Hitz-gezidunak !!

	Filipinetako hizkuntza	▼	Frantziako hiriburua	▼	Amore eman	▼	Baigorriko	▼	Maskur
	Nahasketak		Horiaren antzekoak		Lur zati trinkoak		Gai organikoa		
	▶		▼		▼		▼		▼
	* Irudiko zuhaixka	▶							
	Toka, dago								
Herrak	▼	Zizurko herrixka	▶	▼					
Erreakzio kimiko		Polinesiako uhartea							
▶		▼					Marinelen zerrenda	▶	
							Gogoa		
Toka, nago	▶				Azal	▶	▼		
Gantz, bilgor					Atomo kargadun				
▶				Aiarako	▶	▼			Eguzki
				Ixo!					
Zikiroaren haragi	▶			▼				3. eta 2. bokalak	▶
Sagu, hitz elkarketan								Erbioa	▼
▶			Soto	▶			Meatzeak	▶	▼
			50				Kontso-nantea		
Kitzika-garri	▶		▼				▼		

Zuhaixka mota horren izena zein den badakizu?

Soluzioa: 17 orrialdean.

Kontzertu aparta, ezberdina...

Jende gutxi elkartu zen Zura taldearen kontzertuan. NOAUA!k antolatu berri duen Kulturaldiaren eskutik hurbildu ziren aurreko asteburuan Sutegira. Baina bertaratu zirenak kontzertu ezberdin baten lekuko izan ziren. Ez-ohikoa baita Bidasoaldeko gazte hauen proposamena. "Kiribil" diskoan brasildar kutsuko doinuak jaso zituzten eta kantu horiek eskaini zituzten, emanaldi biribilean.



ZURA TALDEKOAK, SUTEGIN ESKAINI
ZUTEN KONZERTUAN.

Pilota partidak

Azaroak 20 ostirala, AGINAGA 19:00
JUBENILAK banaka USURBIL - OIARPE
(Imanol Zinkunegi) (Oiarzun)

NAGUSIAK 1.maila USURBIL 1-HERNANI
(Xabier Errasti-Julen Urruzola)

PALETA GOMA 1.maila
USURBIL-IKASBERRI
(Iñigo Huegun-Aritz Urdanpilleta) (Azpeitia)

Azaroak 21 larunbata, USURBIL 10:30 (goizez)
NAGUSIAK 1.maila USURBIL 2- ILUNPE
(Jabier Santxo-Aitzol Txapartegi) (Azpeitia)

JUBENILAK 2.maila USURBIL-BEHARZANA
(G. Mendizabal-M. Galarraga) (Villabona)

NAGUSIAK 3.maila USURBIL 1-INTXURRE1
(Iban Arruti-Iker Zinkunegi) (Alegia)

Bigarren nazional mailan gustura, Usurbil KE eskubaloiko senior taldekoak

Maila berrian, bigarren nazional mailan ekin dio aurtengo denboraldiari eskubaloiko senior mutilen taldeetako batek. Nobedadeetara ondo moldatzen ari da Iker Portullarrumek eta Manzanok zuzendutako taldea. Aurtengo erronka kutsuko mezua helarazi nahi diete jokalariei: "Egunero lan egin beharra dago, erein, denboraldi amaieran fruituak jasotzeko".

NOAUA! Nola hasi duzue denboraldi berria?

Manzano. Aurten abuztuaren 14an hasi ditugu entrenamendu saioak. Ez geunden ohituta, baina entrenamenduen prozedura osoa aurreratu beharra izan dugu, igoera fasea martxoan jokatuko baita. Atsedenaldirako tarte gutxi dago beraz. Liga hasi aurretik hogei bat entrenamendu saio egin ditugu. Iraileko azken igandean hasi ginen partidak jokatzen. Aurreko elkarrizketan genion, lehen bost partidetatik hiru irabazi behar genituela. Jokatutako zortzi norgehiagoketatik hiru irabazi ditugu, pozik gaude. Beste hiru partidak gutxi-gatik galdu ditugu. Helburua indartsu hastea zen. Oraingoz sei puntu lortu ditugu.

MANZANO, ENTRENATZAILEA

"Lehen urte honetan, maila berrian finkatu eta mantentzea izango da erronka nagusia"

N. Denboraldi oso gogorra izango zela aurreikusten zenuten. Eta berrikuntzetara ohitu beharra. Zer moduzkoa izan da egokitzapen prozesua?

M. Oso galduta hasi genuen lehen partida, bigarrena ere gaizki. Pixkanaka, arbitro-lanera akoplatu gara. Lehen neurketan, jokalaria kanporatuak izan ziren. Gerora hobetzen joan gara, kanporaketetatik ere ikasi dugu. Bestalde,



MAILA BERRIAN MANTENTZEA IZANGO DA BIGARREN NAZIONALEKO SENIOR MUTILEN ERRONKA NAGUSIA.

oraindik beteranotasuna falta izan zaigu, norgehiagoketako azken minutuetan. Zergatik? Beti esan izan dugun moduan, partida bateko azken minutuak okerrenak direlako. Kontzentratzen ez bazara, talde batek akaba zaitzake. Are gehiago, jokalaria gutxiagorekin ailegatzen bazara amaiera horretara. Neurketetan, egoten jakitea falta zaigu. Halere, orain arteko balorzioa oso positiboa da, gehiago egin genezakeen ustea izan arren. Erronka, lehen itzulia hamar punturekin amaitzea izango da.

N. Lehen erronka nagusia maila igotzea zen lehen. Epe luzerako hurrengo helburua zein izango da?

M. Lehenbizi maila honetan trebatu beharra dago. Lehen urte honetan maila berrian finkatu eta mantentzea izango da. Hurrengo denboraldian jarraituz gero, taldea indartu eta beste helburu batzuk finkatzea. Gerora, jokalaria oso gazteak ditugunez, maila honetan mantenduta, goia jo genezake. Halere, bigarren nazional mailan jokatzea egun oso zaila da. Etorkizunerako taldea osatu nahi dugu, baina landu beharra dago.

N. Alde horretatik, gainerako eskubaloiko taldeek baino ardura gehiago duzuela sentitzen duzue?

M. Askoz gehiago. Bigarren nazional mailako taldeak markatzen baitu klubak, denek begiratzen gaituzte. Datozenen ispilua gara, gainerako taldeena... Bigarren nazionaleko taldea ondo badoa, talde guztiek bere martxa hartuko dute.

"Zortea izaten ari gara lesioekin"

N. Zer esan nahi diezu taldekideei?

M. Egunero lan egin beharra dago, erein, denboraldi amaieran fruituak jasotzeko. Jarrera oro har oso ona izaten ari da. Zuzendaritzak ere eragin handia du, denean laguntzen gaituzte. Oso lan ona egiten ari da, ez gure taldearekin bakarrik baita gainerakoekin ere. Horrekin oso pozik gaude.

Zortea izaten ari gara lesioekin, pare bat lesionatu baino ez ditugu izan. Oso garrantzitsua da lesio gehiago ez izatea. Eta jokalariek entrenamenduetan, egiten duten moduan, ondo pasatzea. Jokalaria gainera lan egiteko gogoz gaude, entrenatzaile batentzat garrantzitsua dena. Entrenatzaileok oso gustura gaude. Oso giro ona sortu dugu, entrenatzaile, jokalaria eta zuzendaritzako kideen artean. Koadrila bat gara.

Agenda !

Azaroak 19 osteguna

- Iparraldeko laborantza hizpide, 19:30ean Sutegin.
- "Musikalean" kalejira. 18:30ean, irteera Zumartetik.

Azaroak 21 larunbata

"Eta Karmele?" antzerki saioa, 19:30ean Sutegin. Sarrerak aldezturik 3 euro kiroldegian. Egunean bertan, 5 euro.

Azaroak 22 igandea

"Piccolo eta Saxo" haurrentzat zinea, 17:00etan Sutegin. Sarrera 2 euro, egunean bertan.

Abenduak 2 asteazkena

Kultura Aholku Batzordea, 18:30ean udaletxean (azaroaren 25ean egitekoa zen baina abenduaren 2ra arte atzeratu da).

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 19, osteguna

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Azaroak 20, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 21, larunbata

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Azaroak 22, igandea

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Azaroak 23, astelehena

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Azaroak 24, asteartea

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Azaroak 25, asteazkena

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Azaroak 26, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 27, ostirala

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Azaroak 28, larunbata

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Azaroak 29, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00),
Urbietakalea, 7 Hernani (943 552 941)

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

"Eta Karmele?", bi emakumeren elkarrizketan oinarritzen den obra

Larunbat honetako antzerkia bi emakumeren arteko elkarrizketan oinarritzen da. Umoretsua, eroa, gazi-gozoa, pentsamendu zentzudunetik egoerarik absurduenera pausu txiki bat besterik ez dagoela erakusten diguna. Guztiaren erdigune, Karmele dugu. Nor ote da Karmele? Topatuko al dugu? Nolakoa izango ote da? Zentzurik ba al du Karmeleren bila ibiltzeak? Baina batez ere... non dago Karmele?



TRATU TXARREN INGURUKO OBRA DA "ETA KARMELE?" ANTZEZLANA.

Azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dira Gizarte Zerbitzuetatik. Egun seinalatuan, "Te doy mis ojos" pelikula eskainiko dute Sutegin.

Baina hori baino lehen, larunbat honetarako "Eta Karmele?" antzezlana antolatu dute.

Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi dira antzezlana hau eskainiko duten aktoreak.

"Eta Karmele?" antzerkia

Eguna: Azaroak 21 larunbata.

Ordua: 19:30ean, Sutegin.

Sarrerak: aldezturik 3 euro, Kiroldegian salgai. Egun berean, 5 eurotan.

Iraupena: 60 minutu.

Reziklarte erakusketa, igandera arte ikusgai

San Markoseko Mankomunitateak "Reziklarte" izeneko lehia-keta jarri zuen martxan atez ateko zabor bilketaren ondorioz kendu ziren kontainerrak birziklatzeko.

70 proiektu bildu zituzten eta

horietatik 26 aukeratu dituzte. Egun hauetan, Dema plazan dago ikusgai erakusketa ibiltari hau.

Merka2 San Markos bigarren esku-ko produktuen azoka, aldez, azaroaren 29an iritsiko da gure artera.

Soluzioa !

			T		P		E		B	
			N	A	H	A	S	T	E	A
			G	O	R	O	S	T	I	A
	J		Z	A	R	I	K	I	E	G
K	A	T	A	L	I	S	I		R	O
			N	A	G	O	K		L	A
			Z	I	H	O		A	I	A
			Z	I	K	I	R	O	K	I
			S	A	T		X	A	I	M
			K	I	L	I	K	A	G	A

Gorostia

Gurasoentzat hitzaldi

interesgarria Zubietan

Nola landu heriotzaren gaia haurrekin? Galdera horren erantzunak ematen saiatuko da Josune Martirena psikologoa; azaroaren 26an osteguna Zubietako Kaxkapen (frontoi atzean) eskainiko duen hitzaldian. 17:00etan hasiko da eta Eskola Txikiko gurasoek eta irakasleek antolatu dute.

ETXEBIZITZA

- Atxegaldeko Erdiko Kalean 81 metro karratuko etxea salgai. Erreformatua, prezioa 47 milioi pezeta. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Logela bat alokatzen da etxe konpartitu batean. Pisua berria da eta Usurbilgo kaxkoan kokatuta dago. 610 319 405.
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berri-ua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokaian nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berri berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Behoko Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.

- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristixo kalean 90 metro karratu (bi solairuan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar dugu Xarma tabernan. Orduategia astegunetan 20:00etatik 22:00tara eta ostebukaeratan 22:30tara. 615724543 / 943368771.
- Bi pertsona helduak zaintzeko emakume euskaldun bat behar da, orduategia arratsaldeko bostetatik goizeko hamarretara. Interesatuak deitu 667802888.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edo zein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.

- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plan txan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Zaldi bat jartzeko lu sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- Ume baten forro polar beltza, kaputxaduna eta kre-maileraduna galdu da Kalezartik Usurbilera bidean. 616436961
- Zazpi gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat eurotan. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aukiak, mahaiak, kafe-makina,... E-posta: istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (Lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu. Oskar: 609468759 / oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari liriko. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Potokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925

Zorionak, polita!

Azaroaren 16an 4 urte borobil egin dituzunez, muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak, Saioa! Uf! Jada 4 urte bete dituzu (azaroaren 18an), sorgintxo bat egina zaude. Ondo pasa eta muxu handi bat, Ama, Aita eta Olatzen partez!



Zorionak Lur,

azaroaren 19an hiru urte betetzen dituzula eta, bizkotxo zatiren bat ea jasotzen dugun. Etxekoak.



Zorionak Saioa!

4 urte bete dituzu azaroaren 18an. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Iholdi!

Zenbat urte egin behar dituzu? 6, bai zeia, ze handia ezta? Orduan txokolatzeko bizkotxo zuk egingo duzu ezta? Bale! Ondo pasa merendolan eta muxu asko familia osoaren partetik. Potoko!!!



Zorionak Danel!

Dagoeneko 4 urte, alajaina! Egun zoriontsua pasa dezazula eta ea gaeuan antolatu dugun afari sorpresa gustatzen zaizun! Besarkada goxo bat maitia!



Oharra: Jaiotzak Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotzen ditugu. Mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan: 943 360 321. E-posta: erredakzioa@noaua.com

HILDAKOAK


Paulo Castresana Egia
Urriaren 29an hil zen,
82 urterekin





antenas
Telemar

133 egun falta dira!!!




elkano kalea 13 HERNANI

Tifnoa. 943 55 33 99
antenastelemar@terra.es



Auto Guria




Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862



*irudiari daukan
garrantzia ematen diogu*

diseinu grafikoa, publizitatea
posterrak/flyer-ak, display-ak, enpresa opariak
packaging-a, web orriak...



HEREXA dISEINUGINTZA

www.herexa.com 943 243 619 670 593 312

**“ Emakume eta
gizon askez
osatutako
Euskal Herria
eraiki
nahi dugulako
emakumeen
aurkako
indarkeriarik
EZ!”**

**USURBILGO UDALA.
BERDINTASUN SAILA.**

